



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 19a

124. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzekoa. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (20. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat taxutu dezan, amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxikipenak itzultze aldera. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behatoki bat era dezan online desinformazioari etengabe aurre egiteko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak azaltzen baitu 2007an sinatu zen Pobreziaren aurkako Nafarroako Ituna berrikusi eta eguneratzeko konpromisoa. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie 2016ko urriaren 15ean Altsasun eraso egin zitzaizen bi guardia zibilei eta haien bikotekideei. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ETAk 40 urte baino gehiagoan eginiko hilketa, bahiketa eta estortsioak. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Landa Inguruneko Emakumearen Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (25. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lau hilabeteko epean txosten bat taxutu dezan NEKP osatzen duten enpresen plantillen egungo egoerari buruz. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (26. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenengo fasea handitzeko proiektuaren barruan Egako adarrean egin beharreko obrei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (27. or.).
- Galdera, harrera-familiei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (28. or.).
- Galdera, Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa. Jokin Castiella Imaz jaunak egin du (28. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Sodena enpresa publikoaren jarduketari buruzko ikerketa batzordea. osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak (30. or.).
- Ponentzia, Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzekoa. Funtzionamendu-arauak aldatzea (32. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko urriaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hilabete bateko epea irekiko da, **2018ko azaroaren 13ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

I

Nafarroak bide luzea eta emankorra egina du erkidego politiko eta juridikoki sendotu gisa. Foru erakundeez gainera (zeinahi delarik haien adie-

razpen historikoa), bestelako erakunde batzuk ere baditu, kontzejuak eta batzarreak, konparazio batera, baita afera publikoetan erantzukizunez parte hartzeko bestelako praktika kolektibo interesgarri batzuk ere. Tradizio horiek erakusten dute bizitza instituzionalean parte hartzeko interes handia izan dela, eta, gainera, parte hartzeko dauden bide berriekin batera, aukera eskaintzen dute urrats erabakigarriak emateko eredu demokratiko irekiagoa, integratzaileagoa eta, beraz, herritarren sostengua lortzeko askoz kapazagoa finkatzeko bidean.

Parte-hartzea eta demokrazia zein bere aldetik ulertu ezin diren errealitateak dira. Gizarteak, lehenik, inola ere urratu ezin diren eskubideen multzo besterezin bat bermatu behar du. Eta horrekin batera, herritarren parte-hartzea ahalbidetu eta sustatu beharra du; izan ere, zenbat eta handiagoa eta kalitate handiagokoa izan haien parte-hartzea, orduan eta demokratikoagoa izanen da gizartea. Hori garbi izanik, eta Espainiako Konstituzioak helburu duen "Demokrazia aurreratuaren" ideal horretara hurbildu nahirik, beharrezkoa da Nafarroako herritarrek parte hartzeko eskura dituzten baliabideak sustatu eta sendotzea. Baliabide horiek lege-arau hauetan jasota daude: martxoaren 25eko 3/1984 Foru Legea, Herriaren Legegintza-ekimena arautzen duena; uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, ekimen arau-emaeleak aurrera eramateari dagokionez; urriaren 28ko 27/2002 Foru Legea, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituena (lege honek ez du 27/2002 Foru Lege hori aldatzen); eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen IV. titulua, foru lege honek indargabetzen duena, izan ere, foru lege honen artikuluetan nabarmen zabalitzen baita titulu hartan jasotako parte-hartze eskubideen esparrua.

Alde batera utzita hauteskundeei loturiko parte-hartze baliabideak, legezko testu honen eremutik kanpo gelditzen baitira, gaur egun ditugun baliabideak Konstituzioan ere jasota dagoen

beste agindu baten ondorio logiko gisa ulertu ahal izatetik oso urruti daude, hots: botere publikoei agintzen diena erraztasunak eman behar dituztela herritar guztiek parte har dezaten bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean. Berrogei urte igaro eta gero, handia da oraindik botere publikoek arlo horretan aurrera egiteko daukaten tarte. Horregatik, foru lege honen helburua da ahal den guztia egitea Nafarroa izan dadin gure antolamendu juridikoak parte hartzeko baimentzen dituen aukerabideen aitzindaria.

Konstituzioaren agindu hori ezin argiagoa izanagatik, doktrina bat dator esatean, adierazpen hutsetik haratago, betebeharrak hori –arrazoi desberdinengatik– ez dela behar bezala gauzatu herritarren errealitate praktikoaren ikuspuntutik, eta adostasun hori kalean ere islatuta dago modu espontaneoan. Egia da alde nabarmena dagoela legeak dioenetik herritarrek –hauteskundeetan alderdiei botoa emateaz haratago– gai publikoetan parte hartu ahal izateko egunero bizi duen errealitate mugatu eta eskasera. Eta alde hori da, hain zuzen, gaur egun erakundeekiko dagoen atsekabea azaltzen duen arrazoi bat, zalan-zarik gabe.

Hortaz, beharrezkoa da Nafarroako gizarteak parte hartzeko gaur egun dituen bideak zabaltzea. Helburu hori erabat justifikatua dago ikuspuntu juridikotik, hala ezarrita baitago bai Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 6. artikuluan, bai Konstituzioaren 23.1 eta 9.2 artikuluan.

II

Foru lege honek honako egitura du: batetik, sei titulu, eta bestetik, bukaerako zatia, xedapen gehigarri batek, xedapen indargabetzaile batek eta hiru azken xedapenek osatua.

I. tituluak xedapen orokorrak biltzen dira. Besteak beste, legearen xedea, helburuak, subjektuak eta aplikazio eremua zehazten dira. Aplikazio eremuari dagokionez, Nafarroako administrazio publikoak ukitzen ditu, baina, batez ere, herritarrei eskubide batzuk bermatzen dizkie administrazio publiko horietan parte hartzeko.

II. tituluak herritarrek parte hartzeko hiru bide berri txertatzen ditu gure antolamendu juridikoan, Nafarroako administrazio publikoen ekimenez edo Nafarroako herritarren ekimenez aktibatzen ahal direnak: eztabaida prozesuak, aurrekontu parte-hartzaileak eta herritar-galdeketak. Horiek batera, beste bide batzuk ere aurreikusten dira, 11/2012 Foru Legean jadanik jasoak zeudenak,

konparazio batera, kontsulta foroak, herritarren panelak eta herritarren epaimahaiak.

Foru lege honen beste berrikuntza bat II. tituluaren xedapen orokorretan jaso da; izan ere, gaur egun eskatzen den jendaurrean jartzeko izapideaz haratago joanda, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartua egonen da Nafarroako Gobernuak onetsi behar dituen plan eta programa guztietan, jendaurrean jartzeaz gainera, titulu horretan bildutako parte-hartze prozesuren bat egitera, behar bezala justifikatzen den kasuetan izan ezik. Eskakizun berri hori nabarmenki zorrotzagoa da herritarren parte-hartzearen kalitateari dagokionez. Horren ondorioz, botere publikoak beraiek dira, goian aipatutako Konstituzioaren 9. artikulua aginduari jarraikiz, herritarren parte-hartzea errazteaz gainera, hura sustatu eta bultzatzen dutenak, herritarren eskubideekin lotutako kontu guztietan gizarte zibil sendo bat sortu eta sendotzeko helburu garbiarekin.

Eztabaida prozesuak eta aurrekontu parte-hartzaileak, hurrenez hurren II. eta III. kapituluatan arautzen direnak, herritarrek Nafarroako Foru Komunitatean parte hartzeko baliabide berriak dira. Herritar-galdeketei dagokienez (IV. kapituluaren bigarren atalean arautuak), gizartearen sektore edo kolektibo jakin baten iritzia ezagutzeko parte-hartze baliabide gisa aurreikusten dira, toki mailako herri-galdeketei buruzko urriaren 28ko 27/2002 Foru Legean araututako galdeketak ez bezala, zeinak hautesleria osatzen duten udal-mugarteko herritar guztientzat irekita baitaude.

Hango herri-galdeketak, neurri batean, Konstituzio Auzitegiak Zuzeneko edo Erdi-zuzeneko Demokrazia gisa izendatu duenaren orbitan kokatzen dira. Foru lege honetan arautzen diren herritar-galdeketak, ordea, Demokrazia Parte-hartzailearen inguruan kokatuko lirake aipatutako auzitegiaren iritzi. Hori horrela, herri-galdeketeetan parte-hartzea, betiere, boto bat ematearekin gauzatzen da –hortik datoz eskatutako berme juridikionalak; hortik dator hautesleriak bakarrik izatea parte hartzeko eskubidea; eta hortik dator, logikoki, bozketa-sistema gisa hartzea–. Herritar-galdeketeetan, berriz, parte-hartzea mugatzen da herritarrek gai jakin bati buruz duten iritzia biltzera. Gainera, herritar-galdeketeetan, urtebetetik gora eroldaturik daramaten hamasei urtetik gorako pertsonen ematen dute iritzia, eta ez hautesle-eroldan agertzen diren adin nagusikoek.

III. tituluak herritarren ekimenez gertatzen den parte-hartzea du aztergai. Legegintzako herri-ekimena aurreikusten du, eta, horrez gainera, mozioak, adierazpenak, gaitzespenak, galderak, interpelazioak, informazio eskeak eta ikerketa ba-

tzordeak sustatzeko aukera erreala eskaintzen die herritarrei. Bide horiek sortzen dira modu bereziki baliaugarrian eragina izan dezaten bere eskubideen jakitun den gizarte zibil kementsu bat sortzeko prozesuan.

I. kapituluaren herritarren ekimen arau-emaileak jorratzen dira, eta legegintzako herri-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legean ezartzeko arauetara bidaltzen du, eta toki esparrurako, berriz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Herritarren gaitzespen ekimenek aipamen berezia merezi dute; baliabide hori II. kapituluaren arautu da, eta aukera ematen die herritarrei Gobernuko eta toki korporazioetako kideen jardura kontrolatzeko ekintzak sustatzeko eskubidea erabil dezaten. Ordezkaritzako beste konfigurazio batzuetan errebokazioa zilegi bada ere, gure sistema politikoan ez du biderik; izan ere, gauza jakina da Espainian herritarrek ez dutela banakako kargurik aukeratzeko, zeinak baitira, berez, errebokatu daitezkeen bakarrak. Aitzitik, zilegi da herritarrei aukera ematea eska diezaioten Parlamentuari edo toki korporazioari osoko bilkurari kideren baten gaitzespena, foru lege honetan jasotzen den bezala, nahiz eta bide hori ez den sekula erabili orain arte.

III. kapituluaren, Nafarroako herritarrek gainerako figura parlamentarioak Nafarroako Parlamentuan sustatzeko ekimena artikulatzen da (mozioak, adierazpenak, galderak, interpelazioak, informazio eskeak eta ikerketa batzordeak), baita Nafarroako Foru Komunitatean eta toki entitateetan parte-hartzeko prozesuak ireki daitezela sustatzeko ere.

Herritarrek tresna parlamentarioak sustatzeaz den bezainbatean, kapituluaren lehenengo atalean jasotakoak hain zuzen, lege honek izugarri indartzen du botere betearazlearen kontrol demokratikoa egiteko bermea. Gainera, ekimen parlamentario horien artikulazioak ekarri du eskea egiteko eskubide agurgarria beste modu berritzaileago eta osagarri batean konfiguratzea, eta, hala, foru lege honi esker eskubide horren izaera sendotzeaz gainera, beste era batean egituratzen da, halako moduan non eske hutsetik parte-hartzera (eskea baino zorrotzagoa baita) doan distantzia nabarmen betetzen baita.

III. kapituluaren bigarren atalak aztergai ditu, sinadura kopuru jakin bat bilduta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan prozesu parte-hartzaile bat irekitzeko herritarren ekimenak. Hori

berrikuntza garrantzitsu bat da, herritarrek botere betearazlearen politiken aurrean duten eginkizuna nabarmenki indartzera datorrena berriz ere. III. kapituluaren bukaera gisa, hirugarren atalean toki esparrura zabaltzen da herritarrek prozesu parte-hartzaileak sustatzeko aukera.

IV. tituluak parte-hartzearen antolaketa administratiboa arautzen du. Beste berrikuntza batzuk sartzen badira ere, arlo hau, batez ere, Nafarroako Gobernuak sortuko duen Parte-hartzearen Webgunearen bitartez artikulatuko da, non parte-hartzearen errealitate guztiak zentralizatu eta ikusaraziko baitira. Webgune horretan, prozesu guztien berri emanen du Administrazioak. Horrela, foru lege honetan jasotako herritarren ekimenen batean inplikaturiko herritar guztiei online gune bat bermatuko zaie beren proposamena defendatzeko, sinadura digitalak biltzeko eta bideoak, audioak edo egoki iruditzen zaient beste edozein elementu erakusteko. Berriz ere, Nafarroako herritarrek arlo publikoan izaten duten parte-hartzea sustatzea eta horretarako erraztasunak ematea da kontua.

Ildo beretik, V. tituluak modu berritzaile batean arautzen du sinaduren bilketa –herritarren ekimen guztiak ezaugarritzen dituen elementua–. Sinadurak bildu eta egiaztatzeari begira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak balidatu beharreko erabiltzaile eta pasahitz sistema baten alde egiten da, askoz ere azkarragoa, arinagoa eta eskuragarriagoa baita paperean jasotako sinaduren sistema tradizionala baino edo sinadura elektronikoa baino, zeinak, berriagoa izanda ere, herritarren artean harrera eskasa izan baitu.

Azkenik, VI. tituluaren herritarren parte-hartzea Nafarroako gizartearen sustatzeko eta arlo horretan sentibilizatzeko neurriak jasotzen dira. Horretarako, bai foru eta toki administrazio publikoak bai herritarrek beraiek arlo honen garrantziaz jabetzeko tresnen alde egiten da.

III

Hori guztia eta legean zehar garatzen diren beste berrikuntza batzuk Nafarroako gizarteari aurkeztu zaizkio gizarteak, herritarren parte-hartzearen inguruko guztian, dituen idealen pare dagoen lege bat eskaintzeko asmoz, eta, betiere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarriturik eta herritarrek eremu publikoan esku hartzeko gaitasuna ahalik eta modu emankorrean sustatzeko asmo garbiarekin; izan ere, eremu horretan gizarte burujabea da, berez.

TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko afera publikoen zuzendaritzan parte hartzeko duten eskubidea arautzea eta bermatzea, eta, orobat, Nafarroako toki entitateetan parte hartzea sustatzea, dela herritarren bitartez zuzenean, dela toki entitatea osatzen duten parte-hartze entitateen bitartez.

2. artikulua. Helburuak.

Hauek dira foru lege honen helburuak:

1. Erraztasunak ematea Nafarroako herritarrek, erabakiak hartu eta parte hartzeko subjektu diren aldetik, protagonistak izan daitezen politika publikoak finkatu eta erabakiak hartzeko orduan.

2. Behar diren bideak irekitzea Nafarroako herritarrek parte har dezaten Foru Komunitatearen eta Nafarroako toki entitateen eremu politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean, eta parte-hartze hori sustatzea.

3. Nafarroako gizartean kultura parte-hartzailea eta gogoeta-pizgarria bultzatzea.

4. Entitate publikoen eta ordezkari-erakundeen gobernu ekintza herritarren lehentasunetara hurbiltzea.

5. Herritarrek gobernu ekintza kontrolatzeko baliabideak indartzea.

6. Gizarte zibilaren barne-antolaketa sendotzea.

7. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta toki administrazioen arteko lankidetzaren sustatzea herritarren parte-hartzea kudeatu eta sustatzeari dagokionez.

3. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru lege honen aplikazio eremuak Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroako toki entitateen gobernu eta administrazio arloko eskumenei eragiten die.

2. Lege honetako xedapenak honako hauei aplikatuko zaizkie:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde publikoei eta harekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publikoko edo pribatuko entitateei.

b) Nafarroako toki entitateei, haien erakunde publikoei eta haiekin lotutako edo haien menpeko zuzenbide publikoko edo pribatuko entitateei, foru lege honetan ezarri bezala, eta deusetan galarazi

gabe bakoitzaren berariazko araudia eta erregulamendu organikoak.

4. artikulua. Eskubideak.

Parte-hartzeari dagokionez, honako eskubide hauek aitortzen dira, foru lege honetan ezarritakoarekin bat:

1. Legegintzako herri-ekimenei bidez legegintzako proposamenak sustatzeko eskubidea.

2. Foru lege honetan ezarritako parte-hartze bideak erabiliz, Nafarroako Gobernua eta toki entitateetako gobernu organoak kontrolatzeko lanetan parte hartzeko eskubidea.

3. Foru Gobernua bultzatzeko lanetan parte hartzeko eskubidea, Nafarroako Parlamentuan mozio bat sustatzeko dauden herritarren ekimenei bidez.

4. Eztabaida publikoen sustapenean parte hartzeko eskubidea, Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional bat onestea bilatzen duten herritar ekimenei bidez.

5. Zerbitzu publikoen plangintzan, jarraipenean, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko eskubidea, prozesu parte-hartzaileen eta herritarren ekimenei bitartez.

6. Parte-hartzeari lotutako herritarren jardueretan administrazio publikoen laguntza eskatzeko eskubidea.

5. artikulua. Subjektuak.

1. Parte-hartzea, foru lege honetan ezarritakoarekin bat, zuzenean gauzatzen ahalko dute herritarrek, edo, bestela, herritarren parte-hartzerako entitateen bitartez.

2. Foru lege honen ondorioetarako, herritartzat hartzen dira, administrazio prozedura erkidearen oinarriko araudiaren arabera jarduteko gaitasuna izanik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera nafar izaera politikoa duten pertsonak, eta, kasuan kasuko legediak debekatzen ez duen neurrian, Nafarroan bizi diren atzerritarrak.

3. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira herritarren parte-hartzerako entitateak:

a) Herritarren parte-hartzea sustatu eta bideratzeko eginkizun berariazkoak dituzten administrazio publikoetako kide anitzeko organoak.

b) Nafarroan diharduten sindikatuak, enpresa erakundeak, lanbide elkargoak eta interes kolektiboen ordezkari diren gainerako entitateak.

c) Nafarroan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitate pribatuak, beren helburuen artean baldin badago parte-hartzea bera edo, bestela, esku hartu nahi duten parte-hartze prozesuaren xedeko gai zehatza.

d) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen edozein elkarte (herritarren sareak, foroak, plataformak, mugimenduak, etab.), are egoera jakin baterako sortzen direnak ere, betiere erregelamenduz ezartzen diren baldintza zehatzak betetzen badituzte.

6. artikulua. Betebeharrak.

Hona hemen Nafarroako administrazio publikoek parte-hartzearen arloan dituzten betebeharrak:

1. Beren egitura eta funtzionamendua egokitztea, foru lege honetan aitorturiko parte-hartze eskubideak gauzaten direla bermatzeko.

2. Bermatzea beren zerbitzupeko langileek eskubide hauek ezagutzen dituztela eta haien erabilera errazten dutela.

3. Beharrezkoa diren ekintza positiboko neurriak hartzea bermatzeko pertsona guztiek berdintasun baldintzetan erabiltzen dutela herritarren parte-hartze eskubidea.

4. Behar diren neurriak hartzea parte-hartze prozesuetan genero-berdintasuna lortzeko.

5. Parte hartzeko kultura sustatzea eta horretarako pizgarriak ematea, hala gizartean nola beren zerbitzuko langileen artean.

6. Parte-hartze prozesuen hedapena eta zabal-kundea sustatzea.

7. Parte-hartze prozesuen barrenean aurkezten den dokumentazioa herritarrek ulertzeko modukoa dela bermatzea.

II. TITULUA

Herritarren parte-hartze prozesuak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

7. artikulua. Motak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek dira herritarren parte-hartze prozesuak:

- Eztabaida prozesuak.
- Aurrekontu parte-hartzaileak.
- Kontsultak.
- Jendaurrean jartzea.

2. Parte-hartze prozesuak Nafarroa mailakoak izan daitezke, bere baitan Nafarroako Foru Komunitate osoa hartzen dutenean, edo toki mailakoak, bere baitan toki entitateak hartzen dituztenean.

8. artikulua. Herritarren parte-hartze prozesuen helburua.

Beti ere antolamendu juridikoaren kontrakoak ez badira, herritarren parte-hartze prozesuak Nafarroako Gobernuaren edo toki entitate baten eskumeneko afera edo gai hauen gainekoak izan daitezke:

a) Garrantzi berezia duten politika publikoak bidezkoak ote diren aztertzea, politika horiek onartzea eta haien jarraipena eta/edo ebaluazioa egitea.

b) Politikak zehazteko plangintza-tresnak prestatzea.

c) Gastuaren alderdi puntualak lehenestea.

d) Legeak eta erregelamenduak egitea.

e) Zerbitzu publikoak ematea, haien jarraipena eta ebaluazioa.

9. artikulua. Herritarren parte-hartze prozesuen hasiera.

Nafarroako administrazio publikoek ofizios has ditzakete herritarren parte-hartze prozesuak, baita foru lege honen 5. artikuluan aipatzen diren herritarren parte-hartzerako entitateek edo pertsona fisikoek eskatuta ere.

10. artikulua. Deialdia.

1. Nafarroa mailako herritarren parte-hartze prozesuen deialdia egitea kasuan kasuko eztabaidagaien eskumena duen departamentuko titularrari dagokio, eta, politika orokorreko gaiei buruzkoak badira, Nafarroako Gobernuari. Deialdia, gutxienez, Nafarroako Gobernuaren Parte-hartzearen Webgunean argitaratuko da.

2. Herritarren parte-hartze prozesuaren esparrua toki mailakoa bada, kasuan kasuko toki entitateko lehendakariari edo osoko bilkurari dagokio deialdia egitea, eztabaidagaiaren gaineko eskumena nork duen. Deialdia entitatearen iragarkitulan eta haren web-orrian argitaratuko da.

3. Jendaurrean jartzearen kasuan izan ezik, deialdia egin beharko da parte-hartze prozesua hasteko ezarritako eguna baino hilabete bat lehenago gutxienez.

11. artikulua.- Eraginkortasuna.

1. Foru lege honen 7. artikuluan jaso diren parte-hartze prozesuen emaitzak ez dira lotesleak

izanen, baina, onartzen ez badira, organo dei-egileak horretarako arrazoiak eman beharko ditu 30 egun naturaleko epean. Arrazoiak 51. artikuluan aipatutako Parte-hartzearen Webgunean argitaratuko dira, organo dei-egilea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa bada, eta kasuan kasuko iragarki-taulan eta web-orrian, administrazio dei-egilea toki entitate bat baldin bada.

2. Hori gorabehera, foru lege honen 19. eta 20. artikuluetan jasotako aurrekontu parte-hartzaileei buruzko prozesuen emaitzak lotesleak izanen dira prozesuaren deia egin duen organoarentzat baldin eta horrela jaso baldin bada deialdian. Kasu horretan, emaitza betearazi beharko du prozesu parte-hartzailean erabaki bezala.

12. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren betebeharra.

1. Nafarroako Gobernuaren onespena behar duen plan edo proiektu bat edo plangintza publikorako beste edozein elementu prestatu, aldatu edo berrikusi behar den guztietan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartua dago, jendaurrean jartzeaz gainera, eztabaida prozesu bat edo, hala badagokio, kontsulta bat egitera nahitaez.

2. Aurreko zenbakian ezarritako betebeharretik kanpo gelditzen dira honako hauek:

a) Presaz onesten edo izapidetzen diren plan eta programak.

b) Helburu bakarra antolaketa, prozedura edo antzekoak finkatzea dutenak.

c) Helburu bakarra segurtasun publikoa, larrialdietako babes zibila edo gizakien bizitza salbatzea duten plan eta programa orokorrak.

d) Prestatzeko eta onesteko araudi berariazkoa izateagatik, jendaurrean jartzeko edo entzunaldia emateko egintza edo izapidetza jadanik finkatuak dituzten plan eta programa orokorrak.

13. artikulua. Garapena.

1. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez finkatuko ditu Nafarroa mailako prozesu hauetarako baldintzak eta prozedura arauak, foru lege honekin eta aplikagarri diren gainerako arauekin bat.

2. Toki entitateek, nork bere eskumenen eta eskudantzien esparruan, finkatuko dituzte toki mailako prozesu hauetarako baldintzak eta prozedura arauak, foru lege honekin eta aplikagarri diren gainerako arauekin bat.

II. KAPITULUA Eztabaida prozesuak

14. artikulua. Definizioa.

Eztabaida prozesua esaten zaio foru lege honen 8. artikuluko a) eta b) letretan jasotako kasuei dagokien politika publiko bat formulatzeko edo hartzeko prozedura batean edo erabakitzeko prozesu batean integratutako eztabaida publiko batean azaltzen diren argudio eta motibazioak kontrastatzeari. Prozesu horren barruan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa edo toki entitateetako organo eskudunek gune bat irekitzen dute herritarren interesak, jarrerak eta proposamenak ezagutzeko.

15. artikulua. Produkzioa.

1. Eztabaida prozesuak politika publiko bat formulatu, hartu, garatu edo ebaluatzeko prozeduraren hasieran egiten ahalko dira. Hasteko, kasuan kasuko organo eskudunaren berariazko erabakia edo ebazpena beharko da.

2. Salbuespen gisa, prozeduraren hurrengo faseetan ere egiten ahalko dira eztabaida prozesuak, baldin eta hartu beharreko politika publikoak hasiera batean aurreikusten ez zen garrantzia hartu baldin badu izapide fasean, edo politika horren ezaugarriak nabarmen aldatu baldin badira.

16. artikulua. Eztabaida prozesuaren oinarriak.

Eztabaida prozesu guztietan oinarri batzuk finkatu beharko dira, non, prozesuaren oinarriko elementuez gainera, honako alderdi hauek ere zehaztuko baitira:

a) Eztabaida prozesuaren xedeko gaia edo gaiak, hasierako proposamen batean zehaztuko dena, zeina deialdiari gehituko baitzaio eranskin gisa.

b) Prozesua koordinatzeaz arduratuko den administrazio eskudunaren organoa.

c) Eztabaida prozesuaren gehieneko iraupena, zeina gehienez lau hilabetekoa izanen baita, salbu eta zailtasun handiko kasuetan, non sei hilabetekoa izaten ahalko den, arrazoibidez justifikatuz gero.

d) Eztabaida bermatzeko aurreikusitako jarduerak eta haien gutxi gorabeherako egutegia.

e) Ukitutako administrazio publikoak eta pertsona interesdunak.

f) Prozesuaren hasieraren eta garapenaren berri emateko bideak.

17. artikulua. Bukaerako txostena.

Eztabaida prozesua bukatuta, berrogeita bost eguneko epean gehienez, organo eskudunak prozesuari buruzko bukaerako txostena prestatuko du, lortutako ondorioak eta egindako eztabaidaren balorazioa jasoko dituena. Txosten hori Nafarroako Gobernuko Parte-hartzearen Webgunean eta/edo toki entitateak duen antzeko beste gune batean argitaratuko da.

III KAPITULUA

Aurrekontu parte-hartzaileak

18. artikulua. Definizioa.

Prozesu honen bidez, herritarrek modu parte-hartzailean laguntzen dute aurrekontuetan berriaz horretarako finkatutako gastu-partida batzuen destinoa zehazten.

19. artikulua. Aurrekontu parte-hartzaileak Nafarroako Gobernuan.

1. Gobernuak herritar nafarren iritzia jasotzen ahalko du bai Nafarroako aurrekontu orokorren urteko aurreproiektuaren aurrerapenari buruz, bai, behin onetsi ondoren, aurrekontuen edukiari buruz.

2. Era berean, Nafarroako Gobernuko departamentuek herritarren parte-hartze prozesuak sustatzen ahalko dituzte gastuaren alderdi jakin batzuk lehenesten laguntzeko. Prozesu horien xede kasuan kasuko departamentuari atxikitako gastuen aurrekontuko partidak izan daitezke, edo Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuaren gastu-egoeren aurreproiektuetan sartzea aurreikusita dauden beste partida batzuk. Hori guztia erregelamenduz ezarriko da, foru lege hau onetsi ondoren.

20. artikulua. Toki entitateetako aurrekontu parte-hartzaileak.

1. Toki entitateek, dauzkaten eskumen eta eskudantziekin bat, zilegi izanen dute herritarren parte-hartze prozesuak abian jartzea (aurrekontu parte-hartzaileak, esate baterako) beren aurrekontuetako alderdi jakin batzuk lehenesteko.

2. Prozesu horien helburua da toki entitateen gastu atxikipena egitea kontuan hartuta parte-hartze prozesu batean erakutsitako lehenetasunak, prozesu horretan herritarren iritziak, irizpideak eta sentsibilitateak aurretik jasota.

3. Nafarroako Gobernuak toki entitateen aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzen eta sustatzen lagunduko du, ekintza positiboen bidez eta informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez.

IV. KAPITULUA

Galdeketak

Lehenengo atala

Modalitateak

21. artikulua. Modalitateak.

Galdeketak, herritarren parte-hartzerako prozesu gisa, honelakoak izan daitezke:

a) Inkestak: herritarrek gai bati edo batzuei buruz duten iritzia ezagutzeko helburua duten teknika demoskopikoak dira.

b) Entzunaldi publikoa: administrazio publiko batek politika publiko jakin batekin zerikusia duten pertsona eta entitateei entzuteko irekitzen duen ahozko prozedura publikoa da, behar den erabakia hartu aurretik egin beharrekoa.

c) Kontsulta-foroak: Administrazioaren ekimeenez sortzen diren eztabaida guneak dira, eta haien helburua da politika publiko baten ondorioei buruz eztabaidatzea eta gogoeta egitea, eta politika horiek herritarrengan izanen dituzten benetako ondorioei buruzko balorazio analisiak egitea.

d) Herritarren panelak: Administrazioak aldi baterako sortzen dituen informazio guneak dira, eta haien helburua da Administrazioak berak interes publikoko edozein gairi buruz proposatzen dituen kontsultei erantzutea, bereziki herritarrek etorkizunera begira dituzten aurreikuspenei buruz.

e) Herritarren epaimahaiak Administrazio Publikoak sorturiko taldeak dira, eta haien helburua da Administrazioaren ekintza, programa edo proiektu jakin baten ondorioak aztertzea.

f) Herritar-galdeketak: kapitulu honen bigarren atalean araututakoak dira.

Bigarren atala

Herritar-galdeketak

22. artikulua. Definizioa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, herritar-galdeketa da deitutako herritarren sektore edo gizatalde jakin baten iritzia ezagutzea helburu duen herritarren parte-hartzerako tresna bat, non hauteskunde izaera ez duen bozketa sistema bat erabiltzen baita ukitutako sektoreak interes publiko gaiei buruz duen iritzia ezagutzeko. Herritar-galdeketak Nafarroa mailakoak edo toki mailakoak izan daitezke.

2. Foru lege honen eremutik kanpo gelditzen dira toki mailako herri-galdeketak arautzen dituen urriaren 28ko 27/2002 Foru Legean araututako galdeketak.

23. artikulua. Adierazpen sistemak.

1. Herritar-galdeketa batean parte hartzeko eskubidea duten pertsona guztiek eskubidea dute, bozketa bidez, beren iritzia berdintasunez, libreki, zuzenean eta sekretupean emateko.

2. Galdeketa, beti, gai bati edo batzuei buruzkoa izanen da, galdeketaren deialdian esplizituki erredaktatu beharko direnak. Testuan, beti, gai bakoitzari buruz egon daitezkeen aukerabideak jasoko dira, eta boto-emaeleek haietako bat berresten ahalko dute, edo ez.

3. Bozketa presentziala eta/edo telematikoa izan daiteke, deialdian zer erabakitzen den.

24. artikulua. Subjektuak.

1. Nafarroa mailako herritar-galdeketa parte hartzeko eskubidea foru lege honen 5.2 artikuluan aipatzen diren pertsonak izanen dute, galdeketa-aren xedeko gaiarekin zerikusia badute, 16 urtetik gorakoak badira eta urtebetetik gora badaramate Nafarroan eroldaturik.

2. Toki mailako herritar-galdeketa parte hartzeko eskubidea izanen dute administrazio prozedura erkideari buruzko oinarrizko araudiaren arabera jarduteko ahalmena duten pertsonak, galdeketa-aren xedeko gaiarekin zerikusia badute, 16 urtetik gorakoak badira eta urtebetetik gora badaramate eroldaturik herritar-galdeketa-aren deialdia egiten duen toki entitatean.

3. Aurreko ataletan finkatutako adin-muga aldatzen ahalko da haurrak eta haurren eskubideak zuzen-zuzenean ukitzen dituzten gaiak buruzko galdeketa-aren.

4. Botoa emateari begira, administrazio publikoek foru lege honen 5.2 artikuluan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko moduko egiaztapen sistema bat ezartzen ahalko dute, erregelamenduz finkatzen den bezala.

25. artikulua. Mugak.

1. Galdeketa-aren xedeko gaia organo dei-egilearen eskumenekoa izan beharko da.

2. Urtean, Nafarroa mailako hiru herritar-galdeketa egiten ahalko dira gehienez.

3. Urtean, toki mailako bost herritar-galdeketa egiten ahalko dira gehienez.

4. Lehendik kontsultapean jarritako gai berari buruz beste herritar-galdeketa bat egin baino lehen, bi urte igaro beharko dira hasierako galdeketa-rik, zeinahi delarik galdeketa-aren eremua.

V. KAPITULUA
Jendaurrean jartzea**26. artikulua.** Definizioa.

Foru lege honen ondorioetarako, jendaurrean jartzea Nafarroako administrazio publikoen ekime-nez sustatutako parte-hartze baliabide bat da, honako hauek bermatzeko behar diren administrazio xedapenak biltzen dituena:

a) Izaera orokorreko planen edo programen edonolako proposamenen gaineko edo haien aldaketen edo berrikuspenen gaineko informazioa ematea herritarrei.

b) Proposamen horiei buruzko informazioa ulergarria izatea eta irisgarri egotea, eta, zehazki, behar den informazioa ematea erabakitze-prozesuetan parte hartzeko eskubideari buruz, eta, orobat, jakiteko zein administrazio publiko eskudunetan aurkeztu behar diren iruzkinak edo alegazioak.

c) Jendaurrean egoteko aldiak herritarrek ohar- eta iritzia adierazi ahal izatea. Epe hori ez da hilabetetik beherakoa izanen inola ere, eta erakunde-aren komunikazio-bideak erabiliz iragarriko da, plan eta programa orokorrari buruzko erabakiak hartu baino lehen.

d) Erabaki horiek hartzean, behar bezala aintzat hartzea herritarrek parte hartzeko prozesua- ren emaitzak.

III. TITULUA
Herritarren ekimenak**I. KAPITULUA**
Herritarren ekimen arau-emaeleak**27. artikulua.** Foru lege proposamenak.

Nafarroako herritarrek zilegi dute Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 19.2 artikuluan finkatutako ekimen arau-emaele abian jartzea foru lege proposamenak aurkeztuz legegintzako herri-ekimena arautzen duen mar- txoaren 25eko 3/1985 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

28. artikulua. Tokiko proposamen arau-emaeleak.

Nafarroako herritarrek zilegi dute herritarren ekimena abian jartzea kasuan kasuko toki entita- tean aurkeztuz bere eskumeneko xedapen oroko- rren proiektuak edo jarduketan edo erabakien pro- posamenak, Nafarroako Toki Administrazioari

buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

II. KAPITULUA

Herritarren gaitzespen ekimenak

Lehenengo atala

Nafarroako Gobernuako kideen gaitzespena

29. artikulua. Hasiera.

Hamar pertsonak edo gehiagok eskatuta, zilegi izanen da hasiera ematea Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko edozein kide gaitzesteko mozio baten izapidetze parlamentarioari. Ekimenari hasiera emateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Nafarroako Parlamentuaren Erregistroan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzenduak:

a) Gaitzespenaren arrazoiak azaltzen dituen idazkia.

b) Gutxienez hamar pertsonak osatutako izenzerrenda bat, hortik aurrera Ekimenaren Sustatzaileen Batzordea osatuko dutenak. Pertsona horiek beren eskubide zibil eta politikoen jabe izan beharko dira oso-osorik, Nafarroan erroldatuak egon beharko dira eta beren datu pertsonalak aurkeztu beharko dituzte (izen-abizenak eta NANaren fotokopia sinatua). Zerrenda horretan, emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatua izanen da. Gainera, honako hauek adierazi beharko dira:

– Ekimenaren eledun izanen den pertsona eta haren ordezkia.

– Jakinarazpenetarako pertsona bat.

– Ekimenaren sustatzaile gisa agertu nahi duten erakundeak, 5.3. artikuluan aipatutako talderen batekoak izan beharko direnak, betiere.

30. artikulua. Onarpena, ez onartzeko arrazoiak eta zuzenketa.

1. Parlamentuko Mahaiak, bere erregelamenduan xedatzen denari jarraikiz, aurkeztu den dokumentazioa aztertu, eta ekimena izapidetzeko onartzeari buruzko erabaki bat hartuko du, ekimena jaso eta hamabost eguneko epean. Ekimena ohiko bilkuraldietatik kanpora aurkeztuz gero, epe hori hurrengo bilkuraldian hasiko da kontatzen.

2. Ekimena ez onartzeko arrazoiak honako hauek dira:

a) Gaitzetsi nahi den pertsona beraren aurka antzeko ekimen bat aurkeztu izana legegintzaldi berean, betiere ekimen horrek Parlamentuan izapidetzeko behar diren sinadurak lortu bazituen.

b) Foru lege honetan ezarritako betebeharretakoren bat ez betetzea. c) Proposamenak konpon daitezkeen akatsak baditu, Parlamentuko Mahaiak Sustatzaileen Batzordeari jakinaraziko dio, prozesua berriz hasi dezan, hala badagokio.

3. Epe horren barrenean berariazko adierazpenik egiten ez bada, ulertuko da isiltasunak adostasuna adierazten duela, eta ekimena izapidetzeko onartu izana Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Ekimena onartzen ez bada, arrazoiak eman beharko dira, eta justifikazioa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

31. artikulua. Argitalpena.

Izapidetzera onartzeko erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak irekiko du sinadurak biltzeko epea.

32. artikulua. Sinadura-bilketa.

1. Ekimenak 5.000 sinadura bildu beharko ditu gutxienez.

2. Sinatzaileak adinez nagusiak izanen dira, urtebetetik gora eraman beharko dute erroldatuak Nafarroan, Parte-hartzearen Erregistroan inskribatuak egon beharko dute eta haien sinadurak foru lege honen 57. artikuluan aurreikusitako prozeduren bidez egiaztatuak egon beharko dira.

3. Sinadurak biltzeko hiru hilabeteko epea egonen da. Epe hori agortuta eskatutako sinadurak aurkeztu ez badira, ekimena iraungi egiten da. Egoera hori ekimenaren Sustatzaileen Batzordeari jakinaraziko zaio, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

33. artikulua. Izapidetze parlamentarioa.

1. Eskatutako sinadura kopurua lortu dela egiaztatzen duen erregistro-ziurtagiria jasota, Parlamentuko Mahaiak ekimena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du, eta mozio gisa izapidetuko du.

2. Ekimena izapidetu ahal izateko, gutxienez talde parlamentario batek hartu beharko du bere gain.

3. Ekimenaren izapidetzeak aurrera egiten du bere egin duen lehenengo talde parlamentarioaren ekimena balitz bezala, nahiz eta beti agertu beharko den ekimenaren jatorrian herritarren ekimen bat dagoela.

4. Sustatzaileen Batzordeak zilegi du ekimena izapidetze parlamentariotik noiznahi erretiratzea. Horretarako, batzorde horretako kideen erdiek gehi batek edo gehiagok sinatutako idazki bat aurkeztu beharko dute Parlamentuko Erregistroan.

34. artikulua. Kargutik kentzea.

Gaitzespenaren xedeko pertsonak kargua uzten badu, ekimena bertan behera geldituko da.

Bigarren atala**Toki korporazioetako kideen gaitzespena****35. artikulua.** Hasiera.

Foru lege honen 5. artikuluan aipatutako subjektuek zilegi dute toki korporazio bateko edozein kide gaitzesteko izapidea hastea. Ekimena kasuan kasuko toki entitatearen Erregistroan agiri hauek aurkeztuz jarriko da abian:

1. Gaitzespenaren arrazoiak azaltzen dituen idazkia.

2. Ekimenaren eledun bat eta eledunaren ordezkoko bat izendatzeko idazkia, haien datu pertsonalak (izen-abizenak eta NANaren fotokopia sinatua) eta jakinarazpenetarako helbide bat adierazita.

3. Ekimena sostengatzen duten sinaduren zerrenda.

36. artikulua. Ez onartzea.

Ekimena ez onartzeko arrazoiak honako hauek dira:

a) Gaitzetsi nahi den pertsona beraren aurka antzeko ekimen bat aurkeztu izana legegintzaldi berean, betiere ekimen horrek izapidetzeko behar diren sinadurak lortu zituen.

b) Ekimena justifikatzen duten arrazoiak zeri-kusirik ez izatea gaitzetsi nahi den pertsonaren udal eginkizunekin.

c) Foru lege honetan ezarritako betebeharretakoren bat ez betetzea.

37. artikulua. Sinadurak.

1. Kasuan kasuko udalerrian urtebetetik gora erroldaturik daramaten pertsona adinez nagusiek sinatzen ahalko dute gaitzespen baterako ekimena.

2. Gaitzespen ekimen bat aurkezteko, honenbeste sinadura beharko dira gutxienez:

a) 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, erroldaturiko pertsonen %2, eta gutxienez 1.500 sinadura.

b) 2.000 biztanletik 50.000ra bitarteko udalerrira eta kontzejuetan, erroldaturiko pertsonen %3, eta gutxienez 120 sinadura.

c) Gainerako udalerrira eta kontzejuetan, erroldaturiko pertsonen %6, eta gutxienez 15 sinadura.

3. Sinadura bakoitzarekin batera dagokion erroldatze ziurtagiria aurkeztu beharko da.

38. artikulua. Izapidetzea.

1. Ekimena aurkezturik, entitateko idazkaritzari dagokio eskatutako sinadura kopurua aurkeztu dela eta ekimena onartzeko baldintzak bete direla egiaztatzeko agiria agitea.

2. Kasu horretan, udal talde guztiei jakinaraziko zaie, mozio bat planteatu ahal izan dezaten bidezko bideak erabiliz.

III. KAPITULUA**Beste herritar-ekimen batzuk****Lehenengo atala****Nafarroako Parlamentuan****39. artikulua.** Motak.

Nafarroako herritarrek zilegi dute honako ekimen hauek sustatzeko izapide parlamentarioa hastea:

- Idatzizko galdera bat Nafarroako Gobernuari.
- Informazio eske bat Nafarroako Gobernuari.
- Interpelazio bat Nafarroako Gobernuari.
- Mozio bat.
- Adierazpen instituzional bat.
- Ikerketa batzorde bat.

40. artikulua. Hasiera.

Hamar pertsona edo gehiago elkartuta, zilegi da aurreko artikuluan adierazitako ekimen bat sustatzea. Ekimenari hasiera emateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Nafarroako Parlamentuaren Erregistroan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzenduak:

a) Ekimenaren arrazoiak azaltzen dituen idazkia.

b) Gutxienez hamar pertsonak osatutako izenzerrenda bat, hortik aurrera Ekimenaren Sustatzaileen Batzordea osatuko dutenak. Pertsona horiek beren eskubide zibil eta politikoen jabe izan beharko dira oso-osorik, Nafarroan erroldatuak egon beharko dira eta beren datu pertsonalak aurkeztu beharko dituzte (izen-abizenak eta NANaren fotokopia sinatua). Zerrenda horretan, emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatua izan da. Gainera, honako hauek adierazi beharko dira:

– Ekimenaren eledun izan den pertsona eta haren ordezkoa, jakinarazpenetarako helbide bat adierazita.

– Ekimenaren sustatzaile gisa agertu nahi duten erakundeak, 5.3. artikuluan aipatutako talderen batekoak izan beharko direnak, betiere.

41. artikulua. Onarpena, ez onartzeko arrazoiak eta zuzenketa.

1. Parlamentuko Mahaiak, bere erregelamenduan xedatzen denari jarraikiz, aurkezten den dokumentazioa aztertu, eta ekimena izapidetzeko onartzeari buruzko erabaki bat hartuko du, ekimena jaso eta hamabost eguneko epean. Ekimena ohiko bilkuraldietatik kanpora aurkeztuz gero, epe hori hurrengo bilkuraldian hasiko da kontatzen.

2. Ekimena ez onartzeko arrazoiak honako hauek dira:

a) Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan adierazitakoak.

b) Foru lege honetan ezarritako betebeharretakoren bat ez betetzea. Proposamenak konpon daitezkeen akatsak baditu, Parlamentuko Mahaiak Sustatzaileen Batzordeari jakinaraziko dio, prozesua berriz has dezan, hala badagokio.

3. Epe horren barrenean berariazko adierazpenik egiten ez bada, ulertuko da isiltasunak adostasuna adierazten duela, eta ekimena izapidetzeko onartu izana Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Ekimena onartzen ez bada, arrazoiak eman beharko dira, eta justifikazioa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

42. artikulua. Argitalpena.

Izapidetzera onartzeko erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak irekiko du sinadurak biltzeko epea.

43. artikulua. Sinadura-bilketa.

1. Ekimenak, gutxienez, honenbeste sinadura bildu beharko ditu:

a) Informazio eskeak, idatzizko galderak eta interpelazioak sustatzeko: 2.000 sinadura.

b) Mozioak eta adierazpen instituzionalak sustatzeko: 3.500 sinadura.

c) Ikerketa batzordeak eratu daitezela sustatzeko: 15.000 sinadura.

2. Sinatzaileak adinez nagusiak izanen dira, urtebetetik gora eraman beharko dute errolatuak Nafarroan, Parte-hartzearen Erregistroan inskribatuak egon beharko dute eta haien sinadurak foru lege honen 57. artikuluan aurreikusitako prozeduren bidez egiaztatuak egon beharko dira.

3. Sinadurak biltzeko hiru hilabeteko epea egonen da. Epe hori agortuta eskatutako sinadurak aurkeztu ez badira, ekimena iraungi egiten da. Egoera hori ekimenaren eledunari jakinaraziko zaio, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

44. artikulua. Izapidetze parlamentarioa.

1. Eskatutako sinadura kopurua lortu dela egiaztatzen duen erregistro-ziurtagiria jasota, Parlamentuko Mahaiak ekimena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritako moduan izapidetuko du.

2. Ekimena izapidetu ahal izateko, gutxienez talde parlamentario batek hartu beharko du bere gain.

3. Ekimenaren izapidetzeak aurrera egiten du bere egin duen lehenengo talde parlamentarioaren ekimena balitz bezala, nahiz eta beti agertu beharko den ekimenaren jatorrian herritarren ekimen bat dagoela.

4. Sustatzaileen Batzordeak zilegi du ekimena izapidetze parlamentariotik noiznahi erretiratzea. Horretarako, batzorde horretako kideen erdiek gehi batek edo gehiagok sinatutako idazki bat aurkeztu beharko dute Parlamentuko Erregistroan.

Bigarren atala

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan prozesu parte-hartzaile bat irekitzeko ekimena

45. artikulua. Hasiera.

Hamar pertsonak edo gehiagok eskatuta, Nafarroako Gobernuak foru lege honen II. tituluaren aurreikusitako prozesu parte-hartzaile baten deialdia egin dezala eskatzeko izapidea has daiteke. Prozedurari hasiera emateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Erregistroan, Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuari zuzendua:

a) Honako hauek azaltzen dituen idazkia: herritarren parte-hartze prozesua irekitzea gomendatzen duten arrazoiak, parte-hartze prozesuaren xedea eta, 10. artikulua araberak, prozesuaren deialdia egin beharko lukeen Gobernuaren organoa.

b) Honako hauek azaltzen dituen idazkia: proposatzen den parte-hartze prozesu mota zein den eta prozesu hori nola egokitzen zaion kasuari.

c) Gutxienez hamar pertsonak osatutako izenzerrenda bat, hortik aurrera Ekimenaren Sustatzaile

tzaileen Batzordea osatuko dutenak. Pertsona horiek beren eskubide zibil eta politikoen jabe izan beharko dira oso-osorik, Nafarroan erroldatuak egon beharko dira eta beren datu pertsonalak aurkeztu beharko dituzte (izen-abizenak eta NANaren fotokopia sinatua). Zerrenda horretan, emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatua izanen da. Gainera, honako hauek adierazi beharko dira:

– Ekimenaren eledun izanen den pertsona eta haren ordezkoa, jakinarazpenetarako helbide bat adierazita.

– Ekimenaren sustatzaile gisa agertu nahi duten erakundeak, 5.3. artikuluan aipatutako talderen batekoak izan beharko direnak, betiere.

46. artikulua. Onarpena.

1. Foru lege honen 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera eskumena duen organoak ekimena izapidetzeko onartzeari buruzko erabakia hartuko du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpen hori ekimenaren eledunari jakinaraziko zaio, eta Nafarroako Gobernuaren Parte-hartzearen Webgunean argitaratuko da.

2. Erregistroko sarrera-egunetik hasita hama-bost eguneko epean erantzuten ez bada, ulertuko da ekimena izapidetzeko onartu dela.

47. artikulua. Izapidetzea.

1. Ekimena izapidetzeko onartu ondoren, oso-osorik argitaratuko da Nafarroako Gobernuaren Parte-hartzearen Webgunean, atal berezi batean.

2. Ekimenak 5.000 sinadura bildu beharko ditu gutxienez.

3. Sinatzaileak adinez nagusiak izanen dira, urtebetetik gora eraman beharko dute erroldatuak Nafarroan, Parte-hartzearen Erregistroan inskribatuak egon beharko dute eta haien sinadurak foru lege honen 57. artikuluan aurreikusitako prozeduren bidez egiaztatuak egon beharko dira.

3. Sinadurak biltzeko, sei hilabeteko epea egonen da. Epe hori agortuta eskatutako sinadurak aurkeztu ez badira, ekimena iraungi egingen da. Egoera hori ekimenaren eledunari jakinaraziko zaio, eta Nafarroako Gobernuaren Parte-hartzearen Webgunean argitaratuko da.

4. Eskatutako sinadura kopurua bildu dela egiaztatzen duen erregistro-ziurtagiria jasota, organo eskudunak hilabeteko epean egingen du eskatutako prozesu parte-hartzailearen deialdia.

Hirugarren atala

Toki entitateetan prozesu parte-hartzaile bat irekitzeko ekimena

48. artikulua. Hasiera.

Hamar pertsonak edo gehiagok eskatuta, foru lege honen II. tituluan aurreikusitako toki mailako prozesu parte-hartzaile baten deialdia egiteko izapidea hasten ahalko da. Erregistroan agiri hauek aurkeztuz hasiko da prozedura:

a) Toki entitateko lehendakariari zuzendutako idazki bat, non azalduko baitira herritarren parte-hartze prozesua irekitzea gomendatzen duten arrazoiak eta haren xedea.

b) Honako hauek azaltzen dituen idazkia: proposatzen den parte-hartze prozesu mota zein den eta prozesu hori nola egokitzen zaion kasuari.

c) Gutxienez hamar pertsonak osatutako izenzerrenda bat, hortik aurrera Ekimenaren Sustatzaileen Batzordea osatuko dutenak. Pertsona horiek beren eskubide zibil eta politikoen jabe izan beharko dira oso-osorik, toki entitatean erroldatuak egon beharko dira eta beren datu pertsonalak aurkeztu beharko dituzte (izen-abizenak eta NANaren fotokopia sinatua). Zerrendan, emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatua izanen da. Gainera, honako hauek adierazi beharko dira:

– Ekimenaren eledun izanen den pertsona eta haren ordezkoa, jakinarazpenetarako helbide bat adierazita.

– Ekimenaren sustatzaile gisa agertu nahi duten erakundeak, 5.3. artikuluan aipatutako talderen batekoak izan beharko direnak, betiere.

49. artikulua. Onarpena.

1. Toki entitateko lehendakariak ekimena izapidetzeko onartzeari buruzko erabakia hartuko du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpen hori ekimenaren eledunari jakinaraziko zaio, eta toki entitatearen iragarki-taulan eta, hala badagokio, web-orrian argitaratuko da.

2. Erregistroko sarrera-egunetik hasita hama-bost eguneko epean erantzuten ez bada, ulertuko da ekimena izapidetzeko onartu dela.

50. artikulua. Izapidetzea.

1. Ekimena izapidetzeko onartu ondoren, oso-osorik argitaratuko da toki entitatearen iragarki-taulan eta, hala badagokio, haren web-orrian, baita Nafarroako Gobernuaren Parte-hartzearen Webgunean ere, Batzorde Sustatzaileak eskatuz gero.

2. Horrelako ekimenak aurkezteko, honenbeste sinadura beharko dira gutxienez:

a) 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, erroldaturiko pertsonen %2, eta gutxienez 1.500 sinadura.

b) 2.000 biztanletik 50.000ra bitarteko udalerrri eta kontzejuetan, erroldaturiko pertsonen %3, eta gutxienez 120 sinadura.

c) Gainerako udalerrri eta kontzejuetan, erroldaturiko pertsonen %6, eta gutxienez 15 sinadura.

3. Sinadura bakoitzarekin batera dagokion erroldatze ziurtagiria aurkeztu beharko da.

4. Kasuan kasuko udalerrian urtebetetik gora erroldaturik daramaten pertsona adinez nagusiek sinatzen ahalko dute ekimenarekiko atxikimendua.

5. Sinadurak biltzeko, sei hilabeteko epea egonen da. Epe hori agortuta eskatutako sinadurak aurkeztu ez badira, ekimena iraungi egiten da. Egoera hori ekimenaren eledunari jakinaraziko zaio, eta aipatutako webguneetan argitaratuko da.

6. Entitateko idazkariak eskatzen den sinadura kopurua bildu dela egiaztatzeko ziurtagiria eginda, eskatutako prozesu parte-hartzailearen deialdia egiten da, hilabeteko epean.

IV. TITULUA

Antolaketa administratiboa

51. artikulua. Parte-hartzearen Webgunea.

Nafarroako Gobernuak Parte-hartzearen Webgune bat izanen du, eta bertan:

a) Nafarroako Gobernuak inplementatutako herritarren parte-hartze prozesu guztiak zentralizatuko dira.

b) Nafarroako Gobernuak onetsi eta inplementatzeko prest dauden herritarren parte-hartze prozesu guztien katalogo bat jarriko da.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan herritarren parte-hartzearen ganean dagoen araudia argitaratuko da.

d) Herritarren parte-hartze prozesu bestelako bat proposatzeko betebeharrak eta irizpideen gida bat argitaratuko da. Prozesua onetsiz gero, katalogoan sartuko da.

e) Toki entitateek hala eskatuz gero, aukera emanen zaie webgunearen baliabideak erabili ditzaten bai nork bere toki esparruan herritarren parte-hartzea sustatzeko, bai esteka bat ezartzeko toki entitateak berak parte-hartze kontuetarako duen webgunearekin lotzeko.

f) Hurrengo artikuluan aipatzen den gune digital propioa izateko erraztasunak emanen dira.

52. artikulua. Parte-hartzerako gune propioa.

1. Foru lege honetan jasotako herritar-ekimenen sustatzaileen batzordeek gune digital bat izanen dute Parte-hartzearen Webgunearen barruan beren proposamena defendatzeko eta hedatzeko eta lortzen dituzten sinadurak kudeatzeko.

2. Gune digital horretan honako hauek bilduko dira: ekimenaren testua, ekimenaren justifikazioa, sinatzeko aukera, sinadura digitalaren mekanismoa lehenbizikoz eskatzeko modua, ordura arte jasotako sinaduren kontagailua eta, azkenik, sinadurak biltzeko ezarritako epea bukatzeko falta diren egunen kontagailua.

3. Ekimenaren justifikazioa Sustatzaileen Batzordeak erabakitzen duen formatuan egiten da: testua, bideoa, audioa edo Parte-hartzearen Webgunean txertatu daitekeen beste edozein formatu. Sustatzaileen Batzordeak noiznahi aldatzen ahalko du justifikazioaren formatua, betiere sinadurak biltzeko ezarritako epearen barruan. Justifikazioan, gainera, beste orri edo gune batzuetara iristeko estekak txertatzen ahalko dira, betiere horietan irabazteko asmorik ez badago.

4. Parte-hartzearen Webgunean behar diren estekak jarriko dira Sustatzaileen Batzordeak prozesuaren zabalkundea eta sinadura-bilketa Interneten bidez egin ahal izan ditzan, horretarako gaitutako edozein gailuren bidez (mugikorrak, ordenagailuak, tabletak, etab.).

53. artikulua. Parte-hartze kontuetako unitate espezializatua.

Herritarren parte-hartzearen arloko eskumena esleitua duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuak herritarren parte-hartze kontuetarako unitate espezializatu bat izanen du eginkizun hauek betetzeko:

a) Behar diren sinadurak biltzen dituzten herritarren parte-hartze prozesuak abian jartzen direla bermatzea, eta haien sustatzaileen batzordeari aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea.

b) Nafarroako Gobernuak deitzen dituen herritarren parte-hartze prozesuak abiarazteko lana koordinatu eta zentralizatzea.

c) Aholku eta aholkularitza teknikoa ematea departamentuetako parte-hartze unitateei, toki entitateei eta laguntza eskatzen duten pertsona eta elkartei.

d) Parte-hartzearen Webgunea kudeatzea eta eguneratzea, eta barne ezagutzaren kudeatzaile

bat garatzea Nafarroako Gobernuko departamentu guztientzat.

e) Herritarren parte-hartzearen arloan prestakuntza, sentsibilizazio, informazio, aitopen eta sustapen ekintzak bultzatzea.

f) Departamentuetako parte-hartze unitateek aurrera eramaten dituzten parte-hartze prozesuak identifikatzea, haien gaineko aholkuak ematea, egiaztatzea eta ebaluatzea.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Parte-hartzearen gaineko urteko plana prestatzea.

h) Parte-hartze prozesu guztietan erabateko irisgarritasuna dagoela bermatzea, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

i) Begiratzea goian aipatutako neurri guztiak txertatzen direla genero-ikuspuntuaren printzipioekin bat.

54. artikulua. Herritarren parte-hartzerako departamentu-unitateak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek, nor bere antolaketarako foru dekretuan, herritarren parte-hartzearen arduraduna izanen den administrazio unitatea edo organoa izendatu edo eratu beharko dute.

2. Administrazio unitate horiek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuarekin batera, departamentuak sustatutako parte-hartze prozesuak kudeatzea, baita departamentua ukitzen duten beste parte-hartze prozesu batzuk ere, herritarren ekimenez garatzen direnak, betiere prozesu horiek abian jartzean foru lege honetan bildutako parte-hartze eskubideak errespetatzen direla bermatuz.

b) Parte-hartze prozesuak abian jartzeko eskatzen zaion informazio guztia ematea Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuari.

c) Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuarekin batera, sustatzea departamentuko langileen prestakuntza eta herritarren sentsibilizazioa parte-hartzearen arloan.

55. artikulua. Parte-hartzaileen Erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuko Parte-hartzaileen Erregistroa sortzen da, herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen departamentuari atxikita, non foru lege honen arabera galdeketa

edo herritarren ekimen batean parte hartzera deitua izan daitezkeen pertsona guztiak sartuko baitira.

2. Foru lege honetan ezarritako kasuetan parte hartzeko eskubidea erabiltzeko legitimaturik dauden pertsonak direla egiaztatzen duten erregistro-tresnetako datuak jasoko dira Parte-hartzaileen Erregistroan.

3. Erregistroan izena emana ez izateak ez du inoiz ere ekarriko parte hartzeko eskubidea kentzea edo hari uko egitea, betiere sinatzen den unean legitimaturik dagoela egiaztatzen bada.

4. Parte-hartzaileen Erregistroaren araubide juridikoa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

56. artikulua. Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua.

1. Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua eratzen da, Nafarroako Gobernuaren barruan herritarren parte-hartzearen gaineko eskumena duen departamentuari atxikita.

2. Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua herritarren parte-hartzeari lotutako gaietan kontsultak egiteko eta parte hartzeko organo gorena da Nafarroako Foru Komunitatean.

3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Aholkularitza lanak egitea Nafarroako Administrazio Publikoari dagokienez, erakunde espezializatuari aholkuak ematea herritarren parte-hartzearen gaineko politiken diseinuari buruz eta irizpenak edo txostenak egitea parte-hartze demokratikoarekin zuzeneko lotura duten aplikazio orokorreko programa, plan edo xedapen arau-emalerei buruz.

b) Herritarren parte-hartzearen arloan diharduten entitateen mugimendu asoziatiboak herritarren parte-hartzeari buruzko politika publikoen planifikazioan, egikaritzan, segimenduan eta ebaluazioan izanen duen parte-hartze kolaboratiboa artikulatzea.

c) Herritarren parte-hartzeak Nafarroan duen egoera orokorra analizatu, ikertu eta ebaluatzea, erreferente esanguratsuetatik abiatuta, horri esker parte-hartzerik gabeko egoerak antzeman ahal izateko, eta politika publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko egoki iruditzen zaizkion neurri guztiak proposatzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Parte-hartzearen gaineko urteko planari buruzko txostena egitea.

e) Nafarroako Gobernuaren Parte-hartzearen gaineko urteko memoriaz arduratzea.

f) Indarra duten arauetan ezartzen zaizkion gainerako eginkizunak.

4. Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua txertatzen den departamentuak behar adinako laguntza teknikoa eman beharko dio bere eginkizunak egoki bete ditzan.

5. Kontseilua menpean duen departamentuak berariazko partida bat sortuko du Kontseiluaren funtzionamenduari eusteko eta, esleitu zaizkion eginkizunei loturik, bidezko diren jarduketak egin ditzan.

6. Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamenduz zehaztuko dira, foru dekretu bidez. Betiere, zein departamenturi dagoen atxikita, hango kontseilaria izanen du buru, eta kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak.

b) Nafarroako toki entitateen ordezkariak.

c) Herritarren parte-hartzearen arloan diharduten erakunde, elkarte edo entitateen ordezkariak.

d) Gizartearen interesak ordezkatzen dituzten herritar erakunde edo entitateen ordezkariak.

V. TITULUA Sinaduren araubidea

57. artikulua. Sinatzeko sistemak.

Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak egiaztatutzat hartuko dituzte Sustatzaileen Batzordeak aurkeztutako sinadurak prozedura haue-
tariko baten arabera direnean:

a) Sinadura digitalak, baldin eta Parte-hartzearen Webgunearen bidez izapidetzen badira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak balidatzen duen erabiltzailearen eta pasahitzaren bidezko sistema bat erabiliz.

b) Sinadura elektronikoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren araberak.

c) Paperean aurkeztutako sinadurak. Jarraitu beharreko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da, eta, betiere, Parte-hartzearen Webgunearan eskuragai jarriko da plantilla homogeen bat. Paperean aurkeztutako sinadurak honako hauek balidatzen ahal dituzte:

– Notario batek.

– Idazkari judizial batek.

– Udal idazkari batek, edo hark eskuordeturiko funtzionario batek.

– Sustatzaileen Batzordeak horretarako propio izendatzen duen pertsona batek, betiere eskubide zibil eta politiko guztien jabe baldin bada eta goian adierazitako entitateen aurrean idatzizko konpromisoa sinatzen badu.

58. artikulua. Izapidetzea.

1. Sinadurak aurreko artikuluan ezarritako baliabideetatik edozein erabiliz aurkezten ahalko dira, eta zilegi da baliabide bat baino gehiago edo denak batera erabiltzea kasu bakoitzerako ezarritako sinadura kopurura iristeko.

2. Sustatzaileen Batzordeak Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuan edo toki entitateko idazkaritzan aurkeztuko ditu sinadurak, kasuan-kasuan, ezarritako dagoen epea bukatu baino lehen. Aukerakoa da behar diren sinadurak baino gehiago lortzea, epearen barruan, edo finkatutako kopurua bildu eta berehala aurkeztea.

3. Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuak edo toki entitateko idazkaritzak sinaduren eta egiaztapenen baliozko-tasuna egiaztatu, eta behar diren erregistro-ziurtagiriak eginen ditu.

4. Sinadurak faltseatuz gero, sinadurak egiaztatzeko gaiturik dauden pertsona eta entitate guztiek legez ezarritako erantzukizunak izanen dituzte.

59. artikulua. Zehaztapenak.

1. Ezin da foru lege honetan araututako ekimen bat eskatu baldin eta gai berari buruzko beste bat baldin badago eskumen esparru berean.

2. Ekimen batek behar den sinadura kopurua biltzen ez badu, ezin izanen da beste antzekorik aurkeztu harik eta epea bukatzen denetik urtebete igaro arte.

60. artikulua. Epea luzatzea ezinbesteko arrazoiengatik.

1. Ezarritako epea bukatu, ekimena baliorik gabe gelditzen da. Nafarroako Gobernuko organo dei-egileak, Parlamentuko Mahaiak edo toki entitateko idazkaritzak ezinbesteko arrazoiren bat atzemanaz gero, eta, betiere, Sustatzaileen Batzordeak eskatzen badu, epea luzatzen ahalko dute. Luzapen hori hasiera batean ezarritako epearen herena izanen da.

2. Luzapenaren berri ekimenaren eledunari jakinarazi beharko zaio, eta deialdia argitaratu zen toki berberetan argitara eman beharko da.

61. artikulua. Emaizten argitalpena.

Behin sinadurak egiaztaturik eta baliozkoak direnak zenbatu ondoren, Nafarroako Gobernuko Parte-hartze kontuetarako Unitate Espezializatuak edo, hala badagokio, toki entitateko idazkaritzak Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo toki entitatearen iragarki-taulan argitaratuko ditu, zein den kasua, baita norberaren wegbunean ere, eta horren berri emanen dio bai Sustatzaileen Batzordeari, bai ekimenaren xedeko erakundeari.

62. artikulua. Salbuespena toki esparrurako.

Toki entitate batek onetsia duen parte-hartzearen gaineko ordenantzak edo erregelamen-
duak sinadura kopuru txikiago bat ezartzen badu foru lege honetan araututako edozein herritar ekimen aurkezteko, kopuru txikiago hori aplikatuko da.

VI. TITULUA Parte-hartzea sustatzea

63. artikulua. Sentsibilizazioa.

Nafarroako Gobernuak aktiboki sustatuko du bere eskubideen jakitun den gizarte zibil aurreratu bat sendotuz joatea urratsez urrats. Ildo horretan, sentsibilizazio neurri hauek ezarriko dira gizarte parte-hartzaile bat sendotzeko asmoz:

a) Prestakuntza eta/edo sentsibilizazio programak, laguntza-neurriak eta prestakuntza ikastaroak herritarrentzat eta gizarte-entitate parte-hartzaileentzat.

b) Urteko diru-laguntzak gizarte-entitate parte-hartzaileen jardura sustatzeko.

c) Parte-hartzearen arloan aholku emateko bitartekoak, eta herritarrek sustatutako parte-hartze prozesuen dinamizazioan laguntzekoak.

d) Hezkuntza programak, hitzaldiak eta esku-hartze didaktikoak funts publikoekin lagunduriko Nafarroako Gobernuaren ikastetxeetan.

e) Lankidetzaren hitzarmenak, herritarrek toki entitateetan duten parte-hartzea sustatzeko.

f) Administrazio publikoek, sindikatuak, enpresek eta abarrek herritarren parte-hartzearen arloan dituzten jardunbide egokiak aitortzeko protokoloak.

64. artikulua. Prestakuntza.

Nafarroako Gobernuak betebeharrak hauek ditu:

a) Bere zerbitzura aritzen diren langile guztiei prestakuntza egokia emanen die, batetik, herritarrek parte-hartzearen arloan dituzten eskubideak ezagut ditzaten, eta bestetik, botere publikoek horren gainean hartu dituzten betebeharrak jabe daitezen.

b) Jardunbide parte-hartzaileak sustatuko dituen aktiboki bere zerbitzura aritzen diren langile guztien jardueretan.

c) Lankidetzaren hitzarmenak sustatuko dituen kargu publikoak eta teknikariak parte-hartzearen arloan trebatzeko.

d) Herritarren parte-hartzearekin lotutako prestakuntza ekintzak sustatuko dituen gizarte eta enpresa talde eta erakundeentzat.

65. artikulua. Asistentzia.

1. Herritarrek eskubidea dute Administrazio Publikoaren lankidetzaren eskatzeko Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan herritarren parte-hartzea sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiteko.

2. Eskaeraren gaia zein den, horren gaineko eskumena duen departamentuari igorri beharko zaio eskaera, eta, horrekin batera, egin asmo den jarduketa eta egiteko modua azaltzen dituen memoria bat aurkeztu beharko da.

3. Departamentuko organo eskudunak, aurkeztutako eskaera ikusita, proposatutako jarduketaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu, eta arrazoibidez ebatziko du, jarduketa garatzeko emanen duen laguntza zehaztuta, halakorik ematekoa bada.

4. Proposatutako jarduketa ezarri edo garatzeko Administrazio Publikoak egingen duen ekarpena, besteak beste, honelakoa izan daiteke: babesle gisa jardutea; ondasun publikoak lagatzea aldi baterako edo noizbehinka; jarduketa gauzatzeko laguntza tekniko ematea; erakundeen komunikazio-bideen bitartez jarduketa hedatzen eta ezagutzera ematen laguntzea; sari, aintzatespen edo aipamenak, edota antzeko beste neurri batzuk.

Xedapen gehigarri bakarra. Ebaluazioa.

Lau urtean behin, Nafarroako Gobernuak foru lege honen garapenari buruzko ebaluazio txosten bat egingen du, zeina Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilura igorriko baita eztabaidatu eta txostena egin dezan Nafarroako Parlamentura igorri aurretik.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; bereziki, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea.

Azken xedapenetako lehena. Aurrekontueta-ko zuzkidurak.

Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontuetan berariazko zuzkidurak jasoko dira Nafarroan parte-hartzearen sustapena finantzatzeko, aurrekontu-baliabideen arabera. Zuzkidura horiek herri-tarren parte-hartzearen arloan eskumena duen departamentuak kudeatuko ditu, deusetan galara-

zi gabe parte-hartzea sustatzen duten programe-tarako laguntza eta diru-laguntzen kredituak, gainerako departamentuen gastu-egoeretan aurrei-kusten direnak.

Azken xedapenetako bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitara eman eta hiru hilabeteko epean hartu-ko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Ana María Beltrán Villalba andreak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Auzitegi Gorenak lege-doktrina gisa ezarri duenez, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko

zergatik salbuetsita daude Gizarte Segurantzarengandik jasotako amatasun-prestazio publikoak".

Hori da Administrazioarekiko Auzien III. Salako Bigarren Atalaren epai batean jasota ageri dena.

Nafarroan, prestazio horiek salbuetsita egon ziren 2012ra arte; hots, arautik kendu zen arte.

Espaniako gainontzeko lurraldeekiko konparaziozko bidegabekeriak ekiditeko, eta Konstituzioan ezartzen den legez familia eta amatasuna aldezteko politika publikoak sendotzeko xedez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzeko honako proposamen hau aurkezten da.

Artikulu bakarra. 7. artikulua k) letraren azken paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean ezarritako errenta bermatua ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira amatasunagatik, jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko kasuan kasuko deialdien bidez familieren arloan emandako laguntzak ere".

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat taxutu dezan, amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxiki-
penak itzultze aldera.**

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita protokolo bat taxutu dezan, amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxiki-
penak itzultze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amatasun

prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxiki-
penak itzultzeko protokolo bat taxutu dezan.

Auzitegi Gorenak lege-doktrina gisa ezarri duenez, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita daude Gizarte Segurantzarengandik jasotako amatasun-prestazio publikoak".

Hori da Administrazioarekiko Auzien III. Salako Bigarren Atalaren epai batean jasota ageri dena. Epai hori dela-eta, ukitutako pertsonak erreklamatu ahal izanen dute 2014tik hona atxikitakoa itzultzea (data horretan preskribatzen baitira tributuzorrak).

Espaniako gainontzeko lurraldeekiko konparaziozko bidegabekeriak ekiditeko, Nafarroako Gobernuak ofizioz taxutu beharko luke protokolo bat, Nafarroan ere 2014tik honako atxiki-
penak itzultzeko eta, hartara, ukitutako pertsonak itzulketa hori erreklamatu behar izatea ekiditeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxiki-
penak itzultzeko protokolo bat taxutu dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behatoki bat era dezan online desinformazioari etengabe aurre egiteko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behatoki bat era dezan online desinformazioari etengabe aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ekonomia eta Gizarte Digitaleko europar komisario Mariya Gabriel andreak eragile guztiei dei egin die oraintsu, ziurta dezaten bertako herritarrak eraginkortasunez prestatuta eta babestuta egonen direla desinformazioari aurre egiteko, eta ekintza plan bat taxutu dezaten, Europaren planteamentu amankomunaren jarraibideei lotuko zaiena eta europarren kezkari erantzunen diona; izan ere, azken Eurobarometroaren datuen arabera, % 83k uste du albiste faltsuak arrisku bat direla demokraziarentzat.

Desinformazioa borroka politikoko elementu desleial eta bidegabea da, eta herritarrengan frustrazioa eta politikarekiko desatxikimendua eragiten ditu; egia da hori horrela izan dela beti, baina orain inoiz baino handiagoa da, bazter guztietara eta pertsona guztiengana iristen baita euskarri digitalak jendarteratu izanaren ondorioz. Desinformazio horiek –fake news izenez ere ezagutzen direnak, nahiz eta termino hori jada ez den erabiltzen eta Europako Batzordeak berak desegokitzen jo duen– demokraziaren eta gizartearen balioari kalte egiten diote, eta herritarrek gauza izan behar dute horiek argi eta garbi identifikatzeko, horien hedatzea eta kaltea ekiditeko.

Europako Batzordeak, berrogei bat aditurekin egoera aurten ebaluatu ostean, baztertu egin zuen desinformazioa arautzen hastea, baina hezkuntzaren eta autorregulazioaren aldeko apustua egin zuen. Halatan, Interneteko plataforma handiei eskatu zien jardunbide egokien autorregulazio-kode bat taxutu zezaten. Dokumentu hori Ekonomia eta Gizarte Digitaleko europar komisarioak irailaz gerotzik dauka bere mahaiaren gainean; arestian esan bezala, hori da gainontzeko eragileak –erregioetako gobernuak barne– horri atxikitzeko alde aurreko urratsa.

Era berean, eta 2019ko maiatzeko foru-hauteskundeak hurbil daudela ikusita, ezinbestekotzat jotzen da hauteskunderen emaitzen egiaztapen zorrotza ziurtatzen duten sistemen zibersegurtasun-aukerak areagotzea. Nafarrak hautetsontzietara joaten diren bakoitzean, Nafarroak –hauteskunde-kudeaketan esperientzia handia baitukanpoko enpresa teknologiko bati esleitzen dio hauteskunde-kudeaketa, eta Nafarroako Gobernuko IKTen Zuzendaritza Nagusiak horren guztia kontrol zorrotza egiten du, halako moduan non orain arte ez baita inolako gorabehera nabarmenik gertatu. Halere, bizi dugun garai hau aintzat hartuta, beharrezkoa da segurtasun-perimetra eta babes-neurriak areagotzea, kontuan hartuta munduko beste toki batzuetan gertatzen ari diren kanpotiko esku-sartze ugariak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du :

– Behatoki bat era dezan online desinformazioari etengabe aurre egiteko; hartara, faltsukerien zabalkunderako guneak detektatu eta salatuko dira –kontuak, webguneak, blogak eta abar–, informazioa egiaztatuko da eta Interneteko plataforma handiekin etengabe lan eginen da horiek ezabatzeko eta jardunbide egokien kodea betearazteko.

– Kalitatezko informazioa aldeztu dezan; hartara, harreman-bideak ezarri eta euskarri guztietako nafar hedabideekin lan egiteko espazioak sortuko ditu, gure erkidegoari dagokion informazioaren egiaztatzaile izan daitezen, halako moduan non detektatzen den informazio faltsu ororen berri emanen baitzaio desinformazioaren behatokiari eta horren arabera jokatu baita, publizitate insti-

tuzionalaren banaketatik at utziz desinformazioan behin eta berriro jarduten diren hedabideak.

– Europako desinformazio-zentroen sarean sar dadin eta horrekin lankidetzan aritu dadin; hartara, behatokitik hel daitekeen informazioa azkar eta eraginkortasunez partekatuko da, online desinformazioa nahiz beste edozein iturritatik datorrena borrokatzeko.

– Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariari Europako Batzordea egiten ari den dibulgazio-lanetan parte harraraz diezaion; hartara, foru administrazioari nahiz gainontzeko erregio, udal eta gizarte entitateei helaraziko zaizkie hartzen ari diren edo har litezkeen neurri guztiak, arreta berezia jarrita herritarrentzako informazio teknologikoa hobetzeko jardueretan.

– Autobabes-neurriak areagotu ditzan foru hauteskundearen prozesuan, hauteskunde-kanpaina nahiz horren aurreko eta osteko egunetan sor litezkeen zibermehatxuen aitzinean; hartara, alde aurretik aztertuko dira gurea bezalako lurraldeetan gertatzen ari diren segurtasun-zulo berriak.

– Segurtasun-neurriak indartu ditzan hauteskundeetako boto-zenbaketan, halaxe adieraziz esleipen-prozesuan; bereziki, hauteslekuen arteko datu-transmisioan, emaitzen iraultetan eta Nafarroako Gobernuaren espazio digitaletako argitaratzeetan.

Iruñean, 2018ko urriaren 10ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak azaltzen baitu 2007an sinatu zen Pobreziaren aurkako Nafarroako Ituna berrikusi eta eguneratzeko konpromisoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren aurkako Nafarroako Ituna, 2007. urtean sinatutakoa, berrikusi eta eguneratzeko konpromisoa azaltzen du, honako hauek jaso ditzan:

– Agindu etiko, sozial, politiko eta ekonomiko bat, pobrezia Estatu barruan nahiz Estatutik kanpo desagerraraztearen helburua lortzekoa eta gizarte-kohesioa hobetzekoa.

– Espainiako Estatua 2030eko Agendari eta agenda hori Garapen Jasangarriko Helburuen bidez garatzeari atxikitzea adostasun politiko eta sozialeko elementu sendo bat dela, herrialde txirotuenganako elkartasun aktiboko politika bat mantentzeko dagokionez herritarrek daukaten borondate orokorretik ondorioztatzen den legez; halatan, helburu horiek betetzeko beharrezkoa dela nazioarteko erkidegoak ahalegin jarraitua egitea, eta Nafarroak ahalegin horretan lagundu beharra daukala, agenda hori orok bete beharrezkoa denez gero.

– Ekonomia solidarioa –zeinak bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, enpresa solidarioak eta finantza solidarioak jasotzen baititu–

Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeari begira beharrezkoa den eredu baten gisa planteatzen da, eta bazterkeriaren nahiz pobreziaren zergatien aurkako borrokan parte hartzen du, garapen iraunkor bat sustatuz eta gaurko nahiz etorkizuneko belaunaldien beharrezkoak uztartuz.

– Bultzada handiagoa eman beharra pobrezia eta gizarte-bazterketa desagerrarazteko politika publikoei, Nafarroan gizarte-kohesio handiagoa bilatzea helburu, politika eraginkorrak sustatuz eta behar adina baliabide jarritz.

– Ahalegin solidario hau garatzen duen esparru instituzional eta politikoa hainbat legegintzalditan egindako lanaren fruitu eta herritarren ondare komuna da, akordio politikoaren eta herritarren mobilizazioaren fruitu. Hori dela-eta, iraganean hartutako konpromisoak gaurkotu beharra dago konpromiso horiek egiaz bete daitezten eta errealitate politiko eta sozial berrien argitara areagotu daitezten. Borondate hori Pobrezia Desagerraraztearen eta Gizarte-kohesioaren aldeko Tokiko Ituna gaurkotuz gauzatu behar da; izan ere, lankidetzarako politika eta gizarte-politikak ezin dira interes partidisten mende jarri”.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie 2016ko urriaren 15ean Altsasun eraso egin zitzaien bi guardia zibilei eta haien bikotekideei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere estimua eta elkartasuna adierazten dizkie eraso egin zitzaizen guardia zibilei eta beren bikotekideei, bai eta halako gertakaririk berriro ez izateko nahia ere.

2.- Nafarroako Parlamentuak aldeztu eta sustatzen du adierazpen eta pentsamolde askatasunean, desberdinarekiko tolerantzian eta norbakoaren eskubideen errespetuan oinarrituriko gizarte bat”.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ETAk 40 urte baino gehiagoan eginiko hilketa, bahiketa eta estortsioak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu ETA banda terroristak 40 urte baino gehiagoan eginiko hilketa, bahiketa eta estortsioak, eta alder-

di politiko guztiei dei egiten die basakeria hori gaitzets dezaten, espirtu demokratikoa erakusteko eta terrorismoak gure gizartean lekurik ez duela agerian uzteko”.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Landa Inguruneko Emakumearen Nazioarteko Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Landa Inguruneko Emakumearen Nazioarteko Egunarekin, eta balioan jartzen du landa ingurunean bizi diren milioika emakumeen garrantzia.

2.- Nafarroako Parlamentuak berriro ere adierazten du landa ingurunean bizi diren eta jarduera profesionala bertan garatzen duten emakumeen konpromisoa, bai eta haien beharrezan eta aldarrikapenekikoa ere, landa inguruneak ere genero berdintasunaren argipean egon behar baitu.

3.- Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du emakumeek gure herrien garapen eta aurrerabide ekonomikoari eginiko ekarpena, landa inguruneen jasangarritasuna erraztu eta sustatzeagatik; ez bakarrik ekonomikoa, baizik eta gizarte-, kultura- eta populazio-jasangarritasuna ere. Izan ere, landa inguruneko emakumeen lana eta ekarpena aitortzea justizia kontua da, lehenik eta behin.

4.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak bereziki susta

dezan mikroenpresen sorrera, landa ingurunean negozio bat jartzea erabakitzen duten landa-emakumeentzat eta nekazaritza jasangarrian jardutea erabakitzen duten emakumeentzat.

5.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak Nekazaritza-ustategien Titulartasun Konpartituari buruzko Legea sustatu eta aplikatu dezan, eta berariazko prestakuntza eman diezaien arlo horietako ardura duten funtzionarioei, haiek ere aholkularitza egozia eman dezaten beren aldetik.

6.- Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du landa inguruneko emakumeak ikusgai egiteko eta haiei aitortza emateko, eta bat egiten du arlo horretako emakume elkarteek egiten duten lanarekin, eskubide-berdintasunaren alde eta landa inguruneko bizi baldintzak eta bizi kalitatea aldatu eta hobetzeko.

7.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, ezinbestekoa da parte-hartze parekidea ziurtatzea Nekazaritza Politika Erkidearen aplikazioan”.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lau hilabeteko epean txosten bat taxutu dezan NEKP osatzen duten enpresen plantillen egungo egoerari buruz.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2018ko urriaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lau hilabeteko epean txosten bat taxutu dezan NEKP osatzen duten enpresen plantillen egungo egoerari buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lau hilabeteko epean txosten bat egin dezan NEKP osatzen duten

enpresa ezberdinen plantillen egungo egoerari buruz, zehatz-mehatz jakin ahal izan dezagun zer-nolako ezberdintasunak egon litezkeen lan-arloan (soldatak, lanaldiak, kontziliazio-neurriak, oporrak eta abar).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egiazko negoziazio-prozesu bat bultza dezan, gardena eta fede onean oinarritua, Tracasa eta Tracasa Instrumental enpresen zuzendaritzaren eta bi enpresa horietako langile-batzordeen artean”.

Iruñean, 2018ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenengo fasea handitzeko proiektuaren barruan Egako adarrean egin beharreko obrei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen lehenengo fasea handitzeko proiektuaren barruan Egako adarrean egin beharreko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman diezaion:

Egako adarra ez atzera ez aurrera dago legegintzaldia hasi zenetik, eta iragan uztailaren 31n emandako prentsaurreko batean kontseilariak adierazi zuen Egako adarraren obren egutegia ezarriko zela.

Bi hilabete baino gehiago joan dira harrezkero, eta, eskualde horretako nekazarien urtezia eta beharrezana ikusita, honako galdera hau aurkezten dugu:

Noiz hasiko dira Egako adarraren obrak Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeko proiektuan? Zer epe aurreikusten dira adar horretako fase ezberdinetarako?

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, harrera-familiei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, harrera-familiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zenbat familia berrik eskatu du harreretarako, urgentziazko harreretarako eta harrera espezializatueterako egokitasuna?

– Zenbat familia igaro dira harrera-egokitasunetik beste egokitasun mota batera? Adibidez, aldi baterako harreratik edo harrera iraunkorretik espezializatura edo urgentziazkora?

– Zenbat familia berrik eskatu du adopzioarako egokitasuna?

– Adopzioarako egokitasuna zeukaten zenbat familia atera dira, gurasoen adina dela medio, zerrendatik? Adopzioarako guraso izateko adin-mugaren xehetasuna, eta ea ezberdina den adopzioa naziokoa ala nazioartekoa izan.

– Ba al dago familiaburuen adin-mugarik harreretan egokitasuna eskatzeko edo berritzeko?

Iruñean, 2018ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko duen Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa.

JOKIN CASTIELLA IMAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko duen Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jokin Castiella Imaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ogasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko duen Auzitegi Gorenaren orainsuko epaia ikusita,

Zein izanen litzateke hori Nafarroako Foru Komunitateari aplikatzeak izanen lukeen eragin ekonomiko hipotetikoa?

Iruñean, 2018ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Jokin Castiella Imaz

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa batzordea.

OSAERA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2018ko irailaren 20an erabaki zuen Sodena enpresa publikoak eginiko jarduketei buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.

Hori dela eta, Erregelamenduko 62. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, bidezkoa da onestea batzorde horren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua eraenduko dituzten arauak.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, ERABAKI DA:

1. Onestea Sodena enpresa publikoak eginiko jarduketei buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Arauak, Sodena enpresa publikoak eginiko jarduketei buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak

Lehena. Ikerketa batzordea eta haren jarduketak Legebiltzarreko Erregelamenduko 62. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoari egokitu zaizkio.

Bigarrena. Batzordearen xedea honako hau izanen da:

1) Aztertzea 2005-2014 aldian Sodena enpresa publikoak Iberdrolako akzioen salerosketa operazioan baliatutako prozedura eta haren emaitza.

2) Aztertzea Kontuen Ganberak 2002-2013 aldian aztertutako proiektuetatik huts egin zuten zenbaitetan Sodenak eginiko inbertsio finan-

tzarioetan baliatutako prozedura, bai eta inbertsio horien bat-etortzea ere sozietate publiko horren misioarekin.

3) Aztertzea Sodena enpresa publikoak Davalor Salud SL enpresari zenbait mailegu emateko baliatutako prozedura.

4) Nafarroako Gobernuaren eta haren kideen parte-hartzea aipatu eragiketetan.

Hirugarrena. Ikerketa batzordea talde parlamentario bakoitzeko bi kidek eta foru parlamentarien elkarte bakoitzeko kide batek osatuko dute, eta erabaki guztiak boto ponderatuaren sistemaren bitartez hartuko dira, batzordeburuaren hautaketa barne. Eledun bakoitzak, bere taldea edo foru parlamentarien elkartearen zenbat foru parlamentari osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

Laugarrena. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek 2018ko urriaren 25eko 12:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Legebiltzarreko lehendakariari nor aukeratu duten batzordeko kide izateko.

Bosgarrena. Ikerketa batzordea 2018ko urriaren 31n eratuko da, 15:15ean. Eratze-bilkuran Parlamentuko lehendakaria izanen da buru.

Seigarrena. Batzordearen eratze-bilkuran batzordeburua hautatuko da. Batzordeburua ez dagoenetan, haren talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bereko batzordekide den beste foru parlamentaria arituko da haren ordean. Batzordeari laguntzen dion legegaria izanen da batzordeko idazkari.

Zazpigarrena. Ikerketa batzordeak 2019ko otsailaren 1a baino lehen amaitu beharko ditu bere lanak, eta egun horretan onetsita egon beharko dute iristen dituen ondorioztapenek. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, epe hori luzatu ahalko du, Batzordeak eskatzen badu.

Zortzigarrena. Batzordeak egiten dituen informazio- eta dokumentazio-eskaerei erantzuna eman beharko zaie Batzordeak berak kasu bakoitzean ezartzen duen epean. Informazioa edo dokumentazioa zuzenean batzordeburuari helarazi behar zaio, eta horrek batzordekide diren foru parlamentariei berehala emanen die.

Bederatzigarrena. 1. Batzordera agertzeko eskariak zitazio fede-emaille bidez egiten ditu Parlamentuko lehendakariak, agerraldia baino hiru egun lehenago, gutxienez. Zitazio horretan hauxe jaso beharko da:

- a) Batzordeak zein egunetan hartu zuen kasuko pertsonaren agerraldia eskatzeko erabakia.
- b) Agerraldira deitutakoaren izen-abizenak.
- c) Agerraldiaren tokia, eguna eta ordua.
- d) Ohartarazpena, adieraztekoa ezen, agertzen ez bada, Zigor Kodearen 502.1 artikuluan jasotako desobeditze-delitua eginen duela.
- e) Agerraldian hizpide izanen dituen gaiak.
- f) Espresuki aipatuko da Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuko direla; bereziki, pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea, sekretu profesionalerako eskubidea eta kontzientzia-klausularakoa.
- g) Agerraldia hedabideei irekia izanen delako ohartarazpena. Halere, agerraldira deitutakoak ba-

tzordeari eskatzen ahalko dio bilkura isilpekoa izan dadila, horretarako arrazoiak azalduz.

2. Agertzeko eskaria funtzionario publiko bati egiten zaionean, hierarkian haren gainean dagoenari igorriko zaio zitazioaren kopia, jakinarazpen-ondorio hutsetarako.

3. Agerraldira deitutakoak berari laguntzeko izendatzen duen pertsonarekin egin ahalko du agerraldia.

4. Agerraldira deitutakoa batzordeari mintzatu aurretik, batzordeburuak hura ohartaraziko du Zigor Kodearen 502.3 artikulua ezarritakoaz, Parlamentuko ikerketa batzorde baterako deialdia jaso eta lekukotza faltsua ematen duenarentzat.

5. Agerraldira joatera behartuta dagoenari horren ondorioz sortutako gastuak ordaindu egiten zaizkio, behar bezala justifikatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuaren kargura.

Hamargarrena. Ikerketa batzordearen lanek lehenatasuna izanen dute Legebiltzarraren gainontzeko jardueren aldean.

Hamaikagarrena. Ikerketa batzordearen irizpenean bilduko dira iritsitako ondorioztapenak. Baldin eta boto partikularrik badago, onetsitako irizpenari gehitu eta, horrekin batera, Legebiltzarraren Osoko Bilkurari igorriko zaio, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ponentzia, Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzea.

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK ALDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzeko ponentziak igorritako txostena ikusita, ERABAKI DA:

1. Mahaiaren 2017ko maiatzaren 15eko erabakiaren 2. puntuko bigarren paragrafoa aldatzea. Hona testu berria:

“Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaia-ri igorriko zaio, eta hark Osoko Bilkurako kideei helaraziko die, txostena eztabaidatu eta bozkatu-ko den bilkuraren deialdiarekin batera”.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza